



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Hezkuntza Sailean, euskara eskubide?

Ekain amaieran, Hezkuntza Sailak ehunka irakasle funtzionario izendatu ditu: praktikaldia egitea falta dute, bai eta, irailetik aurrera, mediku-azterketa ere.

Azkeneko deialdian, mediku-azterketa azpikontratatu egin zuen Hezkuntza Sailak. Azpikontratatu zuenean, "txikikeriatxo" bat ahaztu zitzaion: euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatuko zirela ziurtatzea. Nik, Steilas sindikatuaren babesarekin, uko egin nion mediku-azterketa gaztelaniaz egiteari eta, hiru bider planto egin ostean, azkenean Hezkuntza Sailak hanka-sartzea onartu eta mediku euskalduna jarri zuen: Bilbotik ekarri behar izan zuten, Gasteizen, nonbait, Hezkuntza Sailak ez daukalako mediku euskaldunik: ez zuzenean kontratataturik, ezta azpikontrataturik ere.

Udaberri honetan konpondutako auzi horretatik hainbat ondorio atera behar direla iruditzen zait.

Lehenengoa, Hezkuntza Sailak ziurtatu beharra dauka berarekin egin beharreko izapide guztiak euskaraz egin ahal izango direla. Berdin dio ahoz zein idatziz, berdin dio arreta zuzenekoan zein azpikontratutakoan. Aukera paregabea dauka plantillako mediku euskaldunak kontratatze-ko eta, azpikontratatu behar izango balu, baldintza-pleguan hizkuntza-klausulak

sartzeko. Hau da, aukera ederra dauka iazko hanka-sartzea ez errepikatzeke.

Bigarrena euskalgintzak atera behar-ko luke. Iaz inork garrantzirik eman ez bazion ere, printzipio kontua da Eusko Jaurlaritzari euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzea ditzala exijitzea. Askoz hobe, gainera, urraketa salatu beharrean, eskubidea gauzagarria izan-go dela ziurtatzea. Hilabete bi pasa geratzen dira mediku-azterketak egiten hasteko; hasi lanean Hezkuntza Sailak oraingoan berma dezan duela sei hilabete bermatu ez zuena: hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea.

Hirugarrena, funtzionario izendatu berri dituzten irakasle euskaltzaleek: gure eskubideak geuk defendatzen ez baditugu, nork? Planto eginez ez bada, zelan? Ondo dago euskarari egiten zaizkion erasoen kontrako manifestazioetara joatea, baina askoz eraginkorragoa da herritar garelako dagozkigun hizkuntza-eskubideak irmotasunez defendatzea.

Izan ere, administrazioak –edozein administrazioak– hizkuntza-eskubideak ukatzen dizkigun bakoitzean euskaldunok salaketa idatzia egingo bagenu, euskara gutxiesten duten epaileek errazago ulertuko lukete geurea, gure kórner honetan, hizkuntza ofiziala dela. Ofiziala, ez koofiziala. ●

Mugak Zabalduz



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Aurten ere, Mugak Zabalduz karabanen ia ehun lagun abiatuko gara Euskal Herritik, Europaren migrazio politikak, eta aurten bereziki onartu berri duen Migrazio eta Asiloko Paktua, salatzeko asmoz. Aurten Balkanetako mugara joango gara, Bosnia Herzegovinako Bihac hirira; hor pertsona musulmanen aurkako genozidioa gertatu zen 1990eko hamarkadan eta, gaur, babes bila datozen pertsonen iragazte-puntua da. Paddan eta Triesten (Italia) ere egitarau zabal antolatuta dute *Carovane Migranti*-ko lagunek, bertako aktibisten lana ezagutu eta memoriatik ikas dezagun, aliantzak sortzen ditugun aldi berean.

Uztailaren 12an aterako gara eta hamar egunez aldarrikatuko dugu eskuin-muturrak murratu nahi duen Europa ez dela gurea. Palestinan gertatzen ari den genozidioa salatu, eta pertsona guztientzat eskubide guztiak eta ibilbide seguruak exijituko ditugu. Gurea asmo oneko pertsonen ahalegin hutsala dela pentsatuko dute batzuek, ezer gutxi egin baitezakegu hedatzen ari den xenofobiaren marmuaren aurka. Baliteke; baina benetan sinesten dut Galeanok zioen honetan: "Jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake". ●